

2.SEGMENTAZIOA

Gure produktua, hiru profil nagusietara doa bideratuta:

Alde batetik, gaur egun, geroz eta jende gehiagok beren denboraren gehiengoa igarotzen du etxetik kanpo, lan asko egiten dutelako. Pertsona hoiek, hainbeste ordu lanean igaroz gero etxera iristean garbitzea da egin nahi duten azken gauza. Gure produktuarekin, hori ez da izan beharko kezka bat, robota automatikoki egingo duelako lan hori. Denbora gehiena kanpoan pasatzean, etxeko garbiketa arazo handia izan daiteke. “**Sensair**”-ek zure xurgagailu robotari sentsoareak gehitzen dizkio, etxea beti garbi egon dadin.

Bestalde, familia handietan etxea garbi mantentzea erronka handia da, batez ere haurrak eta egunero sortzen den hautsa eta zikinkeria kontuan hartuta. Umeak hezitzea denbora asko kontsumitzen du eta berriro, garbiketa lehentasuna izatea zaila bihurtzen da. Espainiako estatuan 6,2 milioi familia daude gutxienez seme bat dutenak. Familia hauen lagunik hoberena “**Sensair**” izango da: xurgagailu robotari sentsoareak gehituz, etxea garbi egongo da haien seme-alaben osasuna zainduz eta eguneroko zereginak errazago eginez.

Azkenik, asma eta alergia dituzten pertsonak geroz eta gehiago dira; Espainian 2-3 milioi pertsona artean dute asma eta biztanleriaren %30ak akaroiei alergia dio. Hauek, etxea garbi mantentzea ezinbestekoa dute osasun arazoak saihesteko. “**Sensair**”-ek xurgagailu robotari sentsoare bereziak gehitzen dizkio, hautsa eta alergenoei modu eraginkorrean kentzeko. Etxea garbi eta segurua izango da, zure arnasa babestuz eta eguneroko bizitza errazagotuz.

Datu hauek kontutan hartuta, argi geratzen da bezero talde handi bat egongo dela.

Adinari erreparatuz, etxeko garbiketara dihoanez, jada independizatuak dauden gazteekin hasiko zen bezero taldea, 25 urtetik gorakoak. Hauek familia ez izan arren, denbora asko igarotzen dute lanean beraz interesatuak egongo ziren. Bestalde, produktu teknologiko bat denez, adin altuekoei ez da egongo bideratua; alegia, 25-50 urteko bitartekoentzat dago bideratua. Adin hauekoak etxeko helduentzat eros ditzakete eta haiek kontrolatu.

Errentaren aldetik, produktuaren prezioa 450 eurokoa izango da , baina ezin dugu ahaztu horrelako produktu bat 10 urterako inbertsio bat dela. Beraz, erdi mailako eta maila altuko familiak erosteko aukera izango dute.

Amaitzeko, gure bezeroen ezaugarri psikografikoak garrantzi izango dute. Gure produktua, aipatu bezala , xurgagailua app baten bidez kontrolatu behar da;

beraz, “Sensair” familia modernoei zuzentzen zaie. Batez ere, eraginkortasunera konektatuta eta bideratuta dauden eta denbora aurreztea eta automatizazioa baloratzen duten familiak izango dira bezero nagusiak.